

KARMENGO AMAREN ITZALDIA
Larran, 2012ko uztailaren 16an

“Eta Ikasleak bere etxean artu eban Maria, Jesusen ama” entzun dogu ebanjelio zatian (Jn 19,27). Zuek be, senideok, ikasle aren antzera, zeuen etxean, biotzean, bizitzan artu do-zue duda barik Maria, Jesusen ama. Larrako Karmengo amaganako debozinoa, zaletasuna, zeuen etxe dozue.



Gaurko jai eder onetan, Karmengo Amaren ondoan, ainbat gauzaz egin geinke, edo egin bearako geunke, gogoeta eta berba emen. Esate baterako, lan bako familiak gogoan artuz, eta ainbeste gazte leenengo lanbidea, bizibidea aurkitzerik izan ez daben gazteak. Eta beste arazo asko, gure erria laritzen dabena. Ez doguz aaztuten. Baina oraingoan aparteko gaia jatorku berez lez begi aurrera, alboratu bear ez doguna.

Alkarregaz gogoratzen dogu aurten, eta datorren urterarte, karmeldarrak Larrara etorri ziraneke irugarren mendea. Julen Urkizak karmeldarrak argitara dauan liburu goresgarrian agertzen dira ainbeste jakingarri istoria aldetik, irureun urte oneetan jazotakoak. Batez be ogeigarren gizaldikoak, guganik urragokoak eta orregaitik guretzat berez interes biziagoa dabena. Ezin geintekuz luzatu ainbeste gauza aipatzen, ezta gitxienik be. Baina esker onaren agergerri da gomuta izatea, esker onak gogoratzea eskatzen dau. Orregaitik, Larrako Karmengo Amaren inguruan leengo aldi luze onetan izan diran egintza batzuk aipatu bear ditugu.

-Karmeldarrak, leenengo eta bein, eliza onen inguruan, Karmengo amaren babespean, emon dabe Jesusen barri ona, euren erriaren arteko otoitz eta bizitza apalaz, sermolaritza eta katekesiaren bidez, eta kristau bizitza areagotzen daben Jaunen sakramentuak ospatuz. Baina Larran eta inguruko errietan ezeze, arago, batez be Bizkaiko eliza askotan izan da euren eragina; orrela artu-emon bizia izan dabe zabal erriagaz, parrokiekin eta erriarrekin.

-Amarkada batzuetan, euskal kulturaren, batez be euskera lantzearen leku sortzaile eta eragile izan da. Aparteko eraz, aldi gogoragoetan erriaren duintasuna dan bere izkuntzari eta kulturari eutsi deutso, orregaitik persegituak eta biktimak izateraino.

-Ia mende baten zear, emeretzigarren mendetik ogeigarrenera, karmeldar gazteen leenengo eziketa urtearen lekua, no-

biziadu-etxea izan da. Emen egin genduan guk geien- geienok nobiziadua.

-Gero paroki eginkizuna be onartu eban, gure eliz-barrutiak kristau erriaren onerako alan eskatuta, eta orretan jarraitzen orain.

-Leen nobiziadua izan zan etxe egala orain ia ogetamabost urtetik onantz, gogartetxe, kristau barriztapenerako eta sakontzeko lekua da.

-Istoria onetan, izendatuko alderdi guztiak dira garrantzitsuak. Baina etxe onek munduan izan dauan zabalpena da bearbada oargarriena. Etxe onetan karmengo biziera artu eben gazteak, mende baten eskas, ia bimila ingurura eltzen dira. Arei esker, Karmeldarron anaidian, Euskalerrria izan da eskualderik misiolariena. Inon baino misiolari geiago izan ditu, beste inon baino lurralde geiagotan zabaldu dau bere misiolaritza. Leenengo, Espainiako lurraldeetan barriztatu eta eregi ebezan alkarteak emengo semeak, eta geroago Portugalen be bai, eta beste kontinenteetan: emengo frutuak joan ziran emeretzigarren gizalditik asita, Cubara, Indiara, Txilera, Perura, Colombiara, Brasilera, Uruguayra, Panamara, Guatemalara, eta Africa-ko Malawira. Oneek dira eraikuntzak, baina beste ainbat lekutara be eldu da emengo gazte barrien laguntza. Istoria eder au Larrako eta Euskarriko istoriaren parte dogu. Jaunaren Barri Onagaz batera gure erriaren izen ona edatu dabe askok eta gure erriaganako berezko begirunea eta maitasuna sortu.

Baina, senideok, orain eskerrak emonaz batera eta aurrekoak adeitsu gogoratu ondoren, olako gogoetak sortzen jakuz naitanaiez biotzean:

Zer izango da gerora, laster, Larrako historia au? Senide eta adiskide arteko konfiantzaz egiten deusuegu berba. Gure misiolariak, azkenak, jarraitzen dabe oindino kanpoko lurralde eta kontinente baztuetan. Amaituko ete da betiko gure misiolaritza? Eleiza guztia-



gaz, arazo au zuen otoitzean eta zuen arduratan jarten dogu. Kristau erri guztiari zuzendua da dei au. Baina emen, geure artean, urragoko itaun larriak ezin daikeguz onezkero estaldu: Ez ete dau jarraitu bear Larrako Karmengo santutegiak, emen sortzen dan itxaropenak? Ez dira agertuko misiolari barriak? Nor bialduko dot?, entzun eban biotzean Isaias profetak bein, eta berak erantzun: Neu joango naz. Bialdu neu. Nork artuko dau laster argi-zuzia, lekukoa, Jesus-en Barri Ona erriaren erdian erakutsiko dauana? Senideok, artu daigun biotzean arazo au, kristau familiak, Karmengo Amaren zaleak, gazte zintzo eta prestuak. Biurtu bedi au, bakez eta erantzukizunez, danon arazo eta auzia. Izan bedi otoiizerako gaia eta ardurea. Aldatu begi gure pentsakera.

Luis Arostegi

HIRUREUN URTE LARREAN

Hiruren urte Larrean
ta oraindik indarrean,
ez dagoz esku txarrean.
Larrazaleok aurkitzen gara
hau ospatu beharrean
ta ez gero bakarrean,
bai alkarte ederrean
Karmengo Amaren aurrean.

Ebanjelio lanean
hemen eta urrunean,
etenbako jardunean.
Karmeldarrontzat gaur ZORIONAK
adiskidetasunean!
Jarrai zintzotasunean,
lagun danon izenean
txaloak esker onean.

Martzel Andrinua.